

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### **ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

**Araua: 2009/44/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko maiatzaren 6koa, ordaintze-sistemetako likidazioaren eta baloreen likidazioaren irmotasunari buruzko 98/26/EE Zuzentaraua eta finantza-bermeen erabakiei buruzko 2002/47/EE Zuzentarauko sistema konektatuei nahiz kreditu-eskubideei buruzko atala aldatzen dituen.**

(Texto pertinente a efectos del EEE)

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:

« *DIRECTIVA 2009/44/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, por la que se modifican la Directiva 98/26/CE sobre la firmeza de la liquidación en los sistemas de pagos y de liquidación de valores y la Directiva 2002/47/CE sobre acuerdos de garantía financiera, en lo relativo a los sistemas conectados y a los derechos de crédito*» (Diario Oficial n° L 146 de 10/06/2009 p. 0037 - 0043)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**2009/44/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,**

**2009ko maiatzaren 6koa,**

**aldatzen duena, batetik, 98/26/EE Zuzentaraua, ordainketa-sistemetan eta baloreak likidatzeko sistemetan likidazioak duen irmotasunari buruzkoa, eta, bestetik, 2002/47/EE Zuzentaraua, sistema konektatuen eta kreditu-eskubideen gaineko finantza-bermearen inguruko akordioei buruzkoa.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia —bereziki Tratatuaren 95. artikulua— aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Banku Zentralaren irizpena aztertu dute <sup>[2]</sup>,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>[3]</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan xedaturiko prozedura betez <sup>[4]</sup>,

Eta honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/26/EE Zuzentaruaren <sup>[5]</sup> ezarritako araubidearen bidez, transferentzia-aginduen irmotasuna, konpentsazioa, eta baloreak ordaintzeko nahiz likidatzeko sistemetan bermeak juridikoki eskatzeko aukera bermatu zaie herrialdeko nahiz atzerriko parte-hartzaileei.

(2) Batzordearen 2006ko apirilaren 7an Batzordea bildu zen 98/26/EE Zuzentaraua, likidazioaren irmotasunari buruzkoa, ebaluatzeko. Ebaluazio-txostenean, zuzentaru horren aplikazioa, oro har, egokia zela ondorioztatu zen. Txosten horretan aipatu zen, baita ere, balitekeela baloreak ordaintzeko eta likidatzeko sistemen sektorean garrantzi handiko aldaketak gertatzen egotea. Txostenean, horrez gain, 98/26/EE Zuzentaraua hein batean aldatzeko eta soiltzeko beharra azpimarratu zen.

(3) 98/26/EE Zuzentaraua egin zenean, sistema horiek modu independentean eta nazio-mailan ziharduten ia eskusiboki. Sistemen arteko konexioen kopuruak, edonola ere, gora egin du nabarmen, eta gorakada hori litzateke, hain zuzen, hautemandako aldaketarik nagusiena. Aldaketa horren eragile izan dira, batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/39/EE Zuzentaraua, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa <sup>[6]</sup> eta, bestetik, konpentsazio eta likidazio gaietarako Europako Jokabide Kodea. Aldaketa horietara egokitzeko, sistema elkarrengilearen kontzeptua eta sistemetako eragileen erantzukizuna zein den argitu beharra dago.

---

<sup>2</sup> C 216 EO, 2008.8.23koa, 1. or.

<sup>3</sup> 2008ko abenduaren 3ko Irizpena (Aldizkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

<sup>4</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko abenduaren 18koa (Aldizkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko apirilaren 27koa.

<sup>5</sup> L 166 EO, 1998.6.11koa, 45. or.

<sup>6</sup> L 145 EO, 2004.4.30ekoa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(4) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/47/EE Zuzentarauak<sup>[7]</sup> mugaz haraindi finantza-bermeak erabiltzeko marko juridiko uniformeak sortu zuen Erkidegoan. Horrela, berme-akordioetan ezarri izan diren baldintza formal gehienak ezabatu ziren.

(5) 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera Eurosistemako kreditu-eragiketetan kreditu-eskubideak berme-mota onargarritzat hartzea erabaki zuen Europako Banku Zentralak. Kreditu-eskubideak erabiltzearen inpaktu ekonomikoa ahalik eta gehien sustatzearen, 2002/47/EE Zuzentarauaren aplikazio-eremua zabaltzea gomendatu zuen Europako Banku Zentralak. 2006ko abenduaren 20an bildurik, finantza-bermearen inguruko akordioei buruzko 2002/47/EE Zuzentarauaren ebaluazio-txostena egin zuen Batzordeak, eta, bertan, hizpide dugun auzia aztertu eta Europako Banku Zentralaren proposamena berretsi zuen. Kreditu-eskubideak erabiliz, eskura diren bermeen erreserba handituko da. Era berean, ordainketa-sistemen eta baloreak likidatzeko sistemen sektorea harmonizatzea lagungarri gerta daiteke estatu kide guztietako kreditu-erakundeen baldintzak berdintzeko. Kreditu-eskubideak berme moduan erabiltzea are eta gehiago erraztea onuragarri izan daiteke kontsumitzaile zein zordunentzat, zeren eta, erabilera horrek, azken buruan, lehiakortasuna biziagotu eta kredituen erabilgarritasuna areagotu baitezake.

(6) Kreditu-eskubideen erabilera errazte aldera, kreditu-eskubideak lagatzea eragotz dezakeen administrazio-arau oro ezabatu edo debekatu behar da, adibidez, jakinarazpen- eta erregistro-eginbeharrak. Era berean, onuradunak arriskuan egon ez daitezen, hartzekodunen aurrean konpentsazio-eskubideak betetzeari uko egiteko aukera izan behar dute zordunek. Bestetik, aipatu berri dugun planteamendua aplikatu daiteke, baita ere, zordunak banku-sekretuaren arauari uko egin ahal izan diezaien, zeren eta, bestela, onuradunak ez bailuke nahikoa informazio izango azpian diren kreditu-eskubideen balioa egoki aintzatesteko. Xedapen horiez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko apirilaren 23ko 2008/48/EE Zuzentaraia, kontsumorako kredituen kontratuei buruzkoa, aplikatuko da<sup>[8]</sup>.

(7) 2002/47/EE Zuzentaraiko 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, onuradunaren jabetza-eskubidea ez aintzatesteko aukera dute estatu kideek, baina, hala eta ere, ez dute eskaini zaien aukera hori hartu. Horrenbestez, xedapen hori ezabatzea egoki da.

(8) Hori dela eta, 98/26/EE eta 2002/47/EE Zuzentarauak aldatu behar dira.

(9) “Legegintza-jarduna hobetzearen alde”<sup>[9]</sup> izeneko erakunde arteko hitzarmenaren 34. paragrafoarekin bat etorritz, estatu kideei animatu zaien, haien eta Erkidegoko interesen alde, beren taulak ezarri eta jendarteratzea. Taula horiek, ahal den neurrian, Zuzentaraia honen eta transposizio-neurrien arteko elkarrekikotasuna azalduko dute.

### HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

#### 1. artikulua

98/26/EE Zuzentarauaren aldaketak

Ondoko aldaketa hauek egiten zaizkio 98/26/EE Zuzentarauari:

1) Zortzigarren kontuan hartzekoa kentzen da.

2) Kontuan hartzeko hau jartzen da:

“(14 bis) Kontuan hartuz agintari edo ikuskatzaile nazional eskudunek ziurtatu behar dutela sistema elkarreragilea ezarri behar duten sistemako eragileek, ahal den neurrian, gordailutze-uneari buruzko arau komunak adostu dituztela sistema elkarreragileetan. Agintari edo ikuskatzaile nazional eskudunek, ahal eta beharrezkoa den neurrian, ziurtatu behar dute

---

<sup>7</sup> L 168 EO, 2002.6.27koa, 43. or.

<sup>8</sup> L 133 EO, 2008.5.22koa, 66. or.

<sup>9</sup> C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

sistema elkarreragileko gordailutze-uneiari buruzko arauak koordinaturik daudela, sarean parte hartzen duten sistemetako batek huts eginez gero segurtasun juridikorik eza ezabatuz.”.

3) Kontuan hartzeko hau gehitzen da:

“(22 bis) Kontuan hartuz sistema elkarreragileetan gordailutze- eta ezeztazintasun-unea zehazteko zer arau aplikatu behar diren jakitea galarazten duten koordinazio-akatsen ondorioz beste sistema batean gertatutako akatsen ondorioak jasan ditzaketela sistema elkarreragileko parte-hartzaileek –baita sistemaren eragileak ere–. Arrisku sistemikoa mugatze aldera, sistema elkarreragileetako gordailutze- eta ezeztazintasun-unea arautzen dituzten arauak koordinatu behar dituzte sistemako eragileek, betiere, haien ardurapean diren sistemetan.”

4) 1. artikuluari aldaketa hauek egin zaizkio:

a) a) idatz-zatian, “ecu” terminoaren lekuan “euro” jartzen da.

b) c) idatz-zatiaren bigarren gidoiko testuaren ordezkari honako hau jartzen da:

“ — estatu kideetako banku zentralak edo Europako Banku Zentralak egiten dituen eragiketak, banku zentral diren aldetik.”.

5) 2. artikulua horrela aldatzen da:

a) Aldaketa hauek egin dira a) idatz-zatian:

i) Lehenengo gidoiaren ordezkari, honako testu hau jarri beharra dago:

“ — hiru parte-hartzaile edo gehiagoren arteko hitzarmen formalak (sistemako operadorea kanpo utzita), balizko likidazio-eragileak, balizko kontraparte zentralak, balizko konpentsazio-ganberak, edo balizko zeharkako parte-hartzaileak), parte-hartzaileen artean likidazioak —berdin kontraparte zentralaren bidez egin ala ez— eta transferentzia-aginduak gauzatzeko arau komunak eta xedapen arautuak jasotzen dituenak;”.

ii) Paragrafo hau gehitzen zaio:

“Sistema elkarreragileen artean egindako akordioak ez dira sistematzat hartuko.”.

b) Testu hau jartzen da b) idatz-zatiaren lehenengo eta bigarren gidoien ordezkari hurrenez hurren:

“– kreditu-erakundea, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko ekainaren 14an emandako 2006/48/EE Zuzentarauak, Kreditu Entitateak Sortzeari eta Kreditu Entitateen Jarduerari buruzkoak (bat egindako araua) [10], 4. artikuluko 1. paragrafoan definitu duen moduan, Zuzentzarau horretako 2. artikuluan jasotako erakundeak barne direlarik;

– inbertsio-enpresa, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauak, Finantza-tresnen Merkaturari buruzkoak, 4. artikuluko 1. paragrafoko 1) idatz-zatian [11] definitu duen moduan, Zuzentzarau horretako 2. artikuluko 1. paragrafoan jasotako erakundeak kanpo direlarik;

c) Aldaketa hauek egingo dira f) idatz-zatian:

i) Lehenengo paragrafoaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

---

<sup>10</sup> L 177 EO, 2006.6.30ekoa, 1. or.

<sup>11</sup> L 145 EO, 2004.4.30ekoa, 1. or.”.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

“f) “parte-hartzailea”: erakundea, kontraparte zentrala, likidazio-eragilea, konpentsazio-ganbera, edo sistema-eragilea.”.

ii) Hirugarren paragrafoaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

“Zuzentarau honetan xedatutakoa betez, zeharkako parte-hartzaile bat parte-hartzailetzat hartzea erabaki dezake estatu kide batek, betiere, arrisku sistemikoa baldin badago. Horiek horrela, arrisku sistemikoaren kariaz zeharkako parte-hartzailea parte-hartzailetzat hartzen bada, eta zeharkako parte-hartzaileak beste parte-hartzaile baten bidez transmititzen baditu transferentzia-aginduak sistemara, bitarteko parte-hartzaile horren erantzukizuna ez da mugatuko.

d) Honako testu hau jarriko da g) idatz-zatiaren lekuan:

“g) “zeharkako parte-hartzailea”: transferentzia-aginduak exekutatzeko dituen sistema batean parte-hartzaile batekin kontratuzko harremana duen erakundea, kontraparte zentrala, likidazio-agentea, konpentsazio-ganbera edo sistemako operadorea, harreman horri esker zeharkako parte-hartzaileak transferentzia-aginduak egin baditzake sistemaren bidez, eta sistemako operadoreak zeharkako parte-hartzailea ezagutzen badu;”.

e) Honako testu hau jarriko da h) idatz-zatiaren lekuan:

“h) “baloreak”: 2004/39/EE Zuzentarauko I. eranskinaren C atalean aipatutako tresna guztiak;”.

f) Ondoko testu hau jarriko da i) idatz-zatiaren lehenengo gidoiaren ordeiz:

“ – diru-kopuru bat hartzailearen eskura jartzeko parte-hartzaileak ematen duen agindua, kreditu-erakunde, banku zentral, kontraparte zentral edo likidazio-eragile baten kontuetan idazpen bat eginez egikaritzen dena; edo, bestela ere, sistemako arauetan definitutako ordainketa-obligazioa onartzea ala ezeztatzea ondorio duen agindua; edo”.

g) Honako testu hau jartzen da l) idatz-zatiaren lekuan:

“l) “likidazio-kontua”: banku-zentral, likidazio-eragile edo kontraparte zentral bateko kontua, fondoak edo balioak gordetzeko eta sistema bereko parte-hartzaileen artean transakzioak likidatzeko erabiltzen dena;”.

h) Honako testu hau jartzen da m) idatz-zatiaren lekuan:

“m) “bermea”: Aktibo bihurtarri oro, barnean direla, inongo murrizketarik gabe, Finantza-bermeen Akordioei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 6ko 2002/47/EE Zuzentarauko [12] 1. artikuluko 4. paragrafoa a) idatz-zatian jaso diren finantza-bermeak, kontratu pignorazioetan (fidantza moduan emandako dirua barne), berrerosketa-itunetan, horren antzekoetan, edo bestelako eragiketetan sistema batekiko sor daitezkeen eskubideak eta betebeharrak bermatzeko asmoz ematen direnak, edo estatu kideetako banku zentralari edo Europako Banku Zentralari emandakoak.

i) Ondoko idatz-zati hauek gehitzen dira:

“n) “laneguna”: egunez nahiz gauez egindako likidazioak eta sistema bateko jardun-zikloan gertatutako jazoera guztiak biltzen dituen lanaia,

o) “sistema elkareragileak”: eragileek egindako hitzarmenaren bidez elkarren artean transferentzia-aginduak gauza ditzaketen bi sistema edo gehiago;

p) “sistemako eragilea”: sistema bat ustiatzeko legezko ardura duen edo duten erakundeak. Sistemako eragilea, halaber, likidazio-agente, kontraparte zentral edo konpentsazio-ganbera gisa aritu daiteke.”.

6) Aldaketa hauek egiten dira 3. artikuluan:

---

<sup>12</sup> L 168 EO, 2002.6.27koa, 43.or.”

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

a) Honako testu hau jartzen da 1. paragrafoaren lekuan:

“1. Transferentzia-aginduak eta konpentsazioa legez eskagarri eta lotesle izango dira hirugarrenentzat, baita parte-hartzaile baten kontrako kaudimen-gabeziari buruzko prozedurari hasiera eman bazaio ere. Hala izango da baldin eta transferentzia-aginduak sisteman egin badira kaudimen-gabeziaren prozedurari hasiera eman aurretik –6. artikuluko 1. paragrafoan azaldu bezalaxe–. Horrela, lerro honen aurretik esandakoa aplikatuko da baita parte-hartzailearen baten kontrako (kasuan kasuko sisteman edo beste sistema elkarreragile batean) edo parte-hartzailea ez den sistema elkarreragile baten sistemako eragilearen kontrako kaudimen-gabezia prozedurari hasiera eman bazaio ere.

Transferentzia-aginduak kaudimen-gabeziaren prozedurari hasiera eman ondotik egin badira eta prozedura horri ekin zaion lanegunaren barruan –sistemako arauen arabera betiere– gauzatu badira, eta aginduok hirugarrenei buruz legez eskatu ahal izateko modukoak izango badira eta lotesleak izango badira, sistemako eragileak frogatu beharko du transferentzia-agindu horiek atzerazinak bihurtu zirenean ez zekiela eta ez zuela zertan jakin kaudimen-gabeziaren prozedurari hasiera eman zitzaioela.”

b) Ondoko paragrafo hau gehitzen da:

“4. Sistema elkarreragileetan, sistema bakoitzak bere arauetan jaso beharko du sistemako gordailutze-unea zein den. Horrela, ahal den neurrian, artean diren sistema elkarreragile guztietako arauak koordinaturik daudela bermatuko da. Sistema elkarreragileetan parte hartzen duten sistemen arauetan berariaz kontrakorik adierazi ezean, sistema baten gordailutze-uneari buruzko arauak ez dute jasango sistema horrekin elkar eragiteko modukoak diren gainerako sistemen arauen eraginik.”

7) Honako testu hau jartzen da 4. artikulua:

“4. artikulua

Sistema elkarreragile bateko sistema-eragile baten edo parte-hartzaile baten kontrako kaudimen-gabeziako prozedurari ekiten bazaio, parte-hartzaile horren likidazio-kontuan diren funts edo baloreak erabiltzea ez galaraztea erabaki dezakete estatu kideek. Neurri horren xedea da, hain zuzen, kaudimen-gabeziaren prozedurari ekin zaion lanegunean parte-hartzaile horrek sisteman edo sistema elkarreragilean izan ditzakeen betebeharrak betetzea. Horrez gain, estatu kideek erabaki dezakete sistemarekin lotura duen parte-hartzaile horren kreditu-tresna bat erabiltzea existitzen diren eta eskuragarri dauden bermeen aurrean aritzeko, eta sisteman edo sistema elkarreragile batean parte-hartzaile horrek dituen betebeharrak betetzeko.”

8) Paragrafo hau gehitzen da 5. artikuluan:

“Sistema elkarreragile bateko parte den sistema bakoitzak ezeztazintasun-unea zein den zehaztu beharko du bere arauetan. Horrela, ahal den neurrian, artean diren sistema elkarreragile guztietako arauak koordinaturik daudela bermatuko da. Sistema elkarreragileetan parte hartzen duten sistema guztietako arauetan berariaz kontrakorik adierazi ezean, elkarren eragile diren sistemetan ezeztazintasun-uneari buruz ezarritako arauak ez dute jasango sistema horrekin eragin ahal duten gainerako sistemetako arauen eraginik.”

9) Honako testu hau jartzen da 7. artikulua:

“7. artikulua

Kaudimen-gabeziaren prozedurek ez dute atzeraeraginezko ondorioz izango kaudimen-gabeziaren prozedurei hasiera emateko uneari –6. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoaren– aurretik parte-hartzaileak sisteman parte hartu izanaren ondorioz dituen eskubide eta betebeharrak gain. Arestian aipatutakoa, sistema elkarreragile bateko parte-hartzaile batek edo sistema elkarreragile bateko parte-hartzaile ez den sistemako eragile batek dituen eskubideei eta betebeharrak aplikatuko zaie.”

10) Honako testu hau jartzen da 9. artikulua:

“9. artikulua

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Kaudimen-gabeziaren prozedurek ez dute eraginik izango, batetik, sistemaren batean edota edozein sistema elkarreragiletan parte-hartzaileek edota sistemako eragileek beren alde ezarri diren bermeeikiko dituzten eskubideen gain eta, bestetik, estatu kideetako banku zentralak nahiz Europako Banku Zentralak beren alde ezarri diren bermeeikiko dituzten eskubideen gain, betiere, kaudimen-gabeziaren prozedurak ondoko hauen kontra hasi badira:

- a) Parte-hartzailearen kontra (kasuan kasuko sistemako edo sistema elkarreragile bateko parte-hartzailearen kontra),
- b) sistema elkarreragile bateko parte-hartzaile ez den sistema-eragilearen kontra,
- c) estatu kideetako banku zentralen edo Europako Banku Zentralaren kontraparte baten kontra, edo
- d) bermeak eratu dituen edozein hirugarrenaren kontra.

Berme horiek goian aipatutako eskubideak betetzeko exekuta daitezke.

2. Lehenengo paragrafoan azaldu den moduan parte-hartzaileen, sistemako eragileen, estatu kideetako banku zentralen edo Europako Banku Zentralaren alde balore bidezko bermea –baloreen gaineko eskubideak barne hartzen dituena– eratuz gero, eta eragile horiek edo horien izenean diharduen edozein ordezkari, eragilek edo hirugarrenek daukaten eskubidea estatu kide bateko gordailu-sistema, erregistro edo kontu zentralizatu batean legez inskribatu bada, estatu kide horretako zuzendari erreparatu beharko zaio hartzekodun pignorazioaren aldetik erakunde horiek arestian aipaturiko bermeen gain zer eskubide duten zehazteko.”

11) Honako testu hau jartzen da 10. artikularen ordeztan:

“10. artikulua

1. Zuzendarau honen aplikazio-eremuan zer sistema eta sistema-eragile sartu behar diren zehaztuko dute estatu kideek, eta Batzordeari hartutako erabakiaren berri eta 6. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritik izendatu dituzten agintaritzetara buruzko informazioa eman beharko diote.

Sistemako eragileak estatu kide bateko legeak bete behar ditu, eta estatu kide horri jakinarazi beharko dio, batetik, parte-hartzaileen identitatea –egon daitezkeen zeharkako parte-hartzaileena barne– eta, bestetik, parte-hartzaile horiekin lotura duten aldaketak.

Bigarren lerrokan adierazitako zehaztapenaz gain, ikuskaritza- edo baimentze-baldintzak ezar diezazkiekete estatu kideek beren jurisdikziopean dituzten sistemetan.

Bidezko interesa duten guztiek eskatu ahal diote erakunde bati azal diezaien zer sistematan hartzen duen parte, eta sistema horien funtzionamendua oinarritzeko zer arauk zuzentzen duten.

2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 6ko 2009/44/EE Zuzendarauak, ordainketa-sistematan eta baloreak likidatzeko sistematan likidazioak duen irimotasunari buruzko 98/26/EE zuzendaraua eta sistema konektatuen eta kreditu eskubideen gaineko finantza-bermearen inguruko akordioei buruzko 2002/47/EE Zuzendaraua <sup>[13]</sup> aldatu ditu. Beraz, 2009/44/EE Zuzendaraua aplikatzeko xedapen nazionalak indarrean sartu aurretik ontzat emandako sistemak ontzat emango dira Zuzendarau honetan xedatutakoa betetzeko orduan.

2009/44/EE Zuzendaraua aplikatzeko xedapen nazionalak indarrean sartu aurretik egiten diren baina horiek indarrean sartu ondotik likidatzen diren transferentzia-aginduak transferentzia-agindutzat hartuko dira Zuzendarau honetan ezarritakoa betearazteko orduan.

2. artikulua

---

<sup>13</sup> L 146 EO, 2009.6.10ekoa, 37. or.”

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2002/47/EE Zuzentarauaren aldaketak

Jarraian adierazi bezala aldatzen da 2002/47/EE Zuzentaraia:

1) Honako testu hau jartzen da 9. kontuan hartzekoaren ordez:

“(9) Zuzentaraia honen aplikazio-eremuko finantza-bermeez baliatzen diren parteen administrazio-beharrak arintzeko asmoz, finantza-bermei buruzko baldintza baliagarri bakar hau ezar diezaiekete lege nazionalak parteei: finantza-bermeak onuradunaren beraren edo onuradunaren izenean diharduen pertsonaren kontrolpean egon behar du, bermatzaileari bermea ordezkatzeko edo soberakina kentzeko aukera ematen dioten berme-moten kalterik gabe. Zuzentaraia honek ezin die debekatu estatu kideei kreditu-eskubidea eskubideen zerrenda batean sartuz ezar dadila eskatzea.2) Honako testu hau jarriko da 20. kontuan hartzekoaren ordez:

“(20) Zuzentaraia honez gain, aplikatzekoak izango dira, baita ere, finantza-berme moduan aurkeztu diren kreditu-eskubideen edo finantza-tresnen kontratuzko xedapenak, hala nola: tresna horietako jaulkitze-baldintzetan ageri diren eskubideak, betebeharrak edo baldintzak; edo, bestela ere, tresnen jaulkitzaileen eta titularren edota kreditu-eskubideen zordunaren eta hartzekodunaren artean aplika daitezkeen beste eskubide, betebeharrak edo baldintza batzuk.”.

3) Kontuan hartzeko hau gehituko da:

“(23) Zuzentaraia honek ez du eraginik izango finantza-bermeen sistemen eraginkortasuna —kreditu-eskubideei eta hirugarrenei dagokienez— bermatze aldera estatu kideek arauak ezartzeko daukaten eskubidearen gain.”.

4) Honela aldatzen da 1. artikulua:

a) Honako testu hau jartzen da 2. paragrafoaren b) idatz-zatiaren lekuan:

“b) banku zentrala, Europako Banku Zentrala, Nazioarteko Ordainketa Bankua, garapenerako banku aldeaniztuna – Kreditu Entitateak Sortzeari eta Kreditu Entitateen Jarduerari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/48/EE Zuzentarauaren (testu bategina) [14], 2006ko ekainaren 14koaren, VI. eranskineko 1. zatiaren 4. atalean zehaztutako bankua–, Nazioarteko Diru Funtza, eta Europako Inbertsio Bankua;

b) Honako testu hau jartzen da 2. paragrafoaren c) idatz-zatiaren i)-tik iv)-ra bitarteko tartekien ordez:

“i) 2006/48/EE Zuzentaraiko 4. artikuluko 1. paragrafoan zehaztutako kreditu-erakundeak, Zuzentaraia horretako 2. artikuluan aipatutako erakundeak barne;

ii) inbertsio-entresak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauaren – finantza-tresnen merkatuei buruzkoaren– 4. artikuluko 1. paragrafoko 1) idatz-zatian [15] definitutakoak;

iii) 2006/48/EE Zuzentaraiko 4. artikuluko 5) paragrafoan zehaztutako finantza-erakundeak;

iv) Kontseiluaren 1992ko ekainaren 18ko 92/49/EE Zuzentarauaren bizi-aseguruz bestelako aseguru zuzenei buruzko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak koordinatzeari buruzkoa (bizi-aseguruez bestelako aseguruiei buruzko hirugarren Zuzentaraia) [16]– 1. artikuluko a) idatz-zatian zehaztutako aseguru-entresak, eta 2002/83/EE Zuzentarauaren

---

<sup>14</sup> L 177 EO, 2006.6.30ekoa, 1. or.

<sup>15</sup> L 145 EO, 2004.4.30ekoa, 1. or.

<sup>16</sup> L 228 EO, 1992.8.11koa, 1. or.



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

–Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2002ko azaroaren 5ekoa, bizi-aseguruei buruzkoa<sup>[17]</sup>– 1. artikuluko 1. paragrafoaren a) idatz-zatian zehaztutakoak;

c) Honako testu hau jartzen da 4. paragrafoaren a) idatz-zatiaren lekuan:

“a) Esku-dirua, finantza-tresnak edo kreditu-eskubideak eman beharko dira finantza-berme gisa;”.

d) Ondoko idatz-zati hau gehitzen zaio 4. paragrafoari:

“c) Estatu kideek salbuetsi egin ditzakete zuzentarau honen aplikazio-eremutik kontsumitzailea zordun duten (Kontsumo-kredituen Kontratuei buruzko 2008ko apirilaren 23ko 2008/48/EE Zuzentarauaren <sup>[18]</sup>, 3. artikuluko a) idatz-zatiko definizioaren arabera) edo, mikroenpresa edo enpresa txikia zordun duten (Mikroenpresen, Enpresa Txikien eta Ertainen Definizioari buruzko 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen 2003/361/EE Gomendioko <sup>[19]</sup> eranskinaren 1. eta 2. artikuluetako 2. eta 3. paragrafoetako definizioaren arabera) kreditu-eskubideak, non eta onuraduna edota kreditu-eskubide horien bermea ematen duena ez den zuzentarau honetako 1. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian jasotako erakundeetako bat.

e) Ondoko aldaketa hauek egiten dira 5. paragrafoan:

i) Bigarren lerrokadan ondoko esaldi hau gehitzen dugu:

“Kreditu-eskubidea identifikatzeko eta kreditu hori aldean arteko finantza-berme moduan eman dela erakusteko, nahikoa izango da idatziz edo juridikoki idatzizkoaren baliokide den beste moduren batean bermearen onuradunari aurkeztuko zaion kreditu-zerrendan kreditu-eskubideak jasota egotea.”

ii) Ondoko lerrokada hau gehitzen da bigarren lerrokadaren ondoren:

“Bigarren lerrokadan adierazitakoaren kalterik gabe, estatu kideek erabaki dezakete bermearen onuradunari idatziz edo idatzizkoaren baliokide den beste moduren batean aurkeztutako kreditu-eskubideen zerrenda batean hura jasota egotea aski izatea kreditu-eskubidea identifikatzeko eta zordunaren edo hirugarrenen kontrako finantza-berme gisa kreditua eman dela erakusteko.”

5) Aldaketa hauek egiten dira 2. artikuluan:

a) Ondoko aldaketa hauek egiten dira 1. paragrafoan:

i) Ondoko testu hau jartzen da b) eta c) idatz-zatien ordez:

“b) “titulartasun-aldaketa dakarren finantza-bermearen akordioa”: bermatzaile batek finantza-bermearen jabetza osoa edo finantza-bermearen eskubide osoa onuradun bati transferitzeko akordioa –berrerosketa-itunak barne–, finantza-betebehar nagusiak bermatzeko edo beste estaldura mota bat emateko;

c) “Bahizko finantza-bermearen akordioa”: akordio bat da, zeinaren bidez bermatzaileak onuradunari finantza-bermea bahi-titulu moduan ematen dion edo hura onuradunaren alde ematen duen. Bermatzaileak, edonola ere, finantza-bermearen gain jabetza osoa, kualifikatua, edo eskubide osoak dauzka bermearen gaineko eskubidea ezartzeko unean;”.

ii) Ondoko idatz-zati hau gehitzen da:

---

<sup>17</sup> L 345 EO, 2002.12.19koa, 1. or.”.

<sup>18</sup> L 133 EO, 2008.5.22koa, 66. or.

<sup>19</sup> L 124 EO, 2003.5.20koa, 36. or. ”.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

“o) “kreditu-eskubideak”: 2006/48/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 1) paragrafoan zehaztutako kreditu-erakunde batek – Zuzentaru horretako 2. artikuluan aipatutako erakundeak barne– kreditu bat maileguan emateko akordiotik eratorritako diruzko eskubideak.”.

b) Honako testu hau jartzen da 2. paragrafoko bigarren esaldiaren ordezt:

“Finantza-bermetik bermatzailearen alde den soberakina ordezkatzeko edo kentzeko eskubideek edo, kreditu-eskubideen kasuan, besterik adierazi artean kreditu-eskubideen produktua eskuratzeko eskubideek, ez dute eraginik izango onuradunari egindako finantza-bermearen gain, betiere, Zuzentaru honetan xedatutakoarekin bat etorritik.”

6) Aldaketa hauek egiten dira 3. artikuluan:

a) Lerrokada hauek gehitzen zaizkio 1. paragrafoari:

“1. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, kreditu-eskubideak finantza-berme moduan ematen direnean estatu kideek ez dute eskatuko ekitaldi formal bat gauzatzea –hots, kreditu-eskubidearen zorduna erregistratzea edo hari jakinarazpena helaraztea– kreditu-eskubide horien eratzea, baliozkotzea, burutzea, lehenestea, eskagarri bihurtzea edo onargarri izatea frogatzea gisa onartzeko. Estatu kideek, edonola ere, ekitaldi formala gauzatzea –hau da, erregistratzea edo jakinaraztea– eska dezakete, eskubideok burutu, lehenetsi, eskagarri edo onargarri bihurtu izana zordunaren edo hirugarrenen aurrean frogatzea gisa baliatuzko.”

2014ko ekainaren 30ean, beranduenez, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko dio paragrafo hau mantentzea egoki den ala ez.”.

b) Ondoko paragrafo hau gehitzen da:

“3. Kontseiluak 1993ko apirilaren 5ean emandako 93/13/EEE Zuzentaruaren kalterik gabe -Kontsumitzaileekin egindako kontratuetakoa abusuzko klausulei buruzkoa<sup>[20]</sup>]-, eta kontratuetakoa abusuzko klausulei buruzko xedapen nazionalen kalterik gabe, estatu kideek idatziz edo idatzizkoaren balio juridiko bera duen beste moduren batean ondoko eskubide hauei uko egiteko aukera eman behar diete kreditu-eskubideen zordunei:

i) Uko egin ahal izango die kreditu-eskubidearen hartzekodunen kontra dituen konpentsazio-eskubideei, edota, baldin eta hartzekodunak kreditu-eskubidea berme gisa beste pertsona batzuen alde laga, pignoratu edo beste inolabait baliatu badu, beste pertsona horien kontra dituen konpentsazio-eskubideei

ii) Banku-sekretuari buruzko arauen bidez dituen eskubideei; osterantzean, kreditu-eskubidearen hartzekodunak ezingo luke, kreditu-eskubidea berme gisa erabiltze aldera, kreditu-eskubideari buruzko edo zordunari buruzko informaziorik eman, eta informazioa emateko haren gaitasuna murriztu egingo litzateke.

7) Aldaketa hauek egiten dira 4. artikuluan:

a) Ondoko idatz-zati hau gehitzen zaio 1. paragrafoari:

“c) kreditu-eskubideen kasuan: salmenta bidez edo jabetzearen bidez, eta haien balioa konpentsatuz edo balioa finantza-betebehar nagusiak betetzeko aplikatuz.”.

b) Honako testu hau jartzen da 2. paragrafoaren b) idatz-zatiaren ordezt:

“b) Bahi bidezko finantza-bermearen akordioan finantza-tresnak eta kreditu-eskubideak balioesteko moduak hitzartu izana alderdiek.”.

c) 3. paragrafoa ezabatzen da.

---

<sup>20</sup> L 95 EO, 1993.4.21ekoa, 29. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

8) Paragrafo hau gehitzen da 5. artikuluan:

“6. Kreditu-eskubideei ez zaie artikulua aplikatuko.”.

9) Ondoko artikulua gehitzen da:

“ 9 bis artikulua

2008/48/EE Zuzentaraua

Zuzentzarau honetako xedapenak 2008/48/EE Zuzentzarauan zehaztutakoari uko egin gabe ulertuko dira.”.

3. artikulua

Transposizioa

1. 2010eko abenduaren 30a baino lehen, estatu kideek, zuzentzarau honetan ezarritakoa betetzeko behar diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak eman eta argitaratu beharko dituzte. Eta Batzordea jakinaren gainean jarriko dute berehala.

2011ko ekainaren 30etik aurrera aplikatuko dituzte xedapen horiek.

Estatu kideek xedapen horiek onartutakoan, zuzentzarau honi buruzko aipamena sartuko dute xedapen horietan, edo argitarapen ofizialean egingo da aipamena. Estatu kideek zehaztuko dituzte aipamen hori egiteko moduak.

2. Zuzentzarau honek arautzen duen esparruko barne-zuzenbideari buruz ematen dituzten xedapen nagusien testua helarazi beharko diete estatu kideek Batzordeari.

4. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentzarau hau indarrean sartuko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit hamar egun igaro ondoren.

5. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira Zuzentzarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria

J. Kohout

2009/44/EE Zuzentzaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 146, 2009/06/10ekoa)